



GIZAKIA
HELBURU
TXOS
TENEA
2019



Lege Gordailua: SS-1516/05
GIPUZKOA

www.proyctohombregipuzkoa.org



FUNDACION
IZAN
FUNDAZIOA

**GIZAKIA
HELBURU**
Gipuzkoa

**PROYECTO
HOMBRE**
Gipuzkoa

Q
2 0 0 7

“PERTSONAK,
GAUZAK
ALDATZEKO
DUTEN
AHALMENAZ
KONTURATZEN
DIRENEAN
ALDATZEN
DIRA.”

Paulo Coelho



AUR KIBI DEA

- 6** / Aurkezpena
- 8** / Hezkuntza-terapia arloa
- 17** / Tratamendurako laguntza programak
- 23** / Erabiltzailearen perfil orokorra:
 - / Perfil orokorra
 - / Artatutako emakume-gizonezkoen berariazko perfila
- 29** / Erabiltzaileen jardueren laburpena
- 31** / Giza baliabideak
- 34** / Kanpo komunikazioak
- 36** / Laguntza ekonomikoak
- 38** / Asebetetze inkestak
- 43** / Berdintasunarekiko konpromezua

AUR KEZ PE NA

BERRIZ ERE GURE PROGRAMAREN BILAKAERA JARRAITZEN DUTEN GUZTIEKIN -INSTITUZIOAK, LAGUNTZAILEAK, KOLEKTIBOAK...- ETA, ORO HAR, GIPUZKOAKO GIZARTEAREKIN JARTZEN GARA HARREMANETAN 2019. URTEKO GIZAKIA HELBURUREN JARDUNAREN EMAITZA EZAGUTZERA EMATEKO.

2019an Gizakia Helburun **785 pertsona atenditu ditugu, 587 gizonezko eta 198 emakumezko** (881 programa hasi gabe ere bertaratu eta informazioa eskatu dutenak kontuan hartuz gero). Iaz urte osoan 772 pertsona artatu genituen. Aldi berean, Martuteneko Espetxean beste 83 lagun artatu dira. Azpimarratzekoa da baita ere substantziarik gabeko adikzioak dituzten pertsonak ere artatu ditugula (ludopatía, bide jokoak edota erosketa online-ko kasuak hain zuzen ere). Guztira 36, batz besteko 41 urteko adinarekin (21 urtetik 63rarte).

Erabiltzaileek gehien kontsumitzen duten droga alkohola da, beste behin ere, batez ere emakumezkoen artean %2a igo delarik. Dena den, guztien ezaugarri nagusietarikoa da, hain zuzen, polikontsumitzaileak direla. Banandutako emakumezkoen kopurua %5,5a igo dela azpimarratu nahiko genuke baita ere.

Urtean zehar **102.213 aktibitate programatu dira**, erabiltzaileei banaka nahiz taldeka zuzenduak, eta haietatik 93.613 gauzatu

dira (%91,6). Familiei dagokienez, 8.892 aktibitate programatu dira, eta haietatik 7.243 gauzatu dira (%81,5). Aktibitate kopurua, bada, aintzat hartzekoa da, oso, eta gainera askotarikoak izan dira, Banakako Elkarrizketak direla, Familia askoko Taldekoak direla, bestelakoak direla.

Berriro azpimarratu behar dugu, beste behin ere, bolondresen partaidetza. 64 pertsonak laguntza eman digute Gizakia Helbururen hainbat alorretan.

Gainerakoan, gure Erakundeak jarraitu du beste urte batez hainbat elkarte eta instituziorekin elkarlanean: Buruko Osasun Zentroak, Usurbilgo Sendategia, Katea-Legaia, Gizarte Langileen Elkargoa, Inmaculada Ikastetxea, Sorabilla, Deustuko Unibertsitatea, Martuteneko Espetxea, Terapia Familia-erreko Euskal Elkarteak.

Ez dugu txosten hau bukatu nahi Gizakia Helbururen lana ahalbidetu duten pertsona, erakunde eta instituzio guztiei eskerrak eman gabe. Lehenik eta behin, erabiltzaileei eta haien senideei, zeren eta haien ahalegina eta inplikazioa baitira programen protagonista nagusiak.

Bigarrenik, Donostiako Elizbarrutiari eta kongregazio erlijiosoei, erabiltzen ditugun instalazioak musu truk uzten dizkigute eta.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikaren Departamentuak, Gipuzkoako Udalek, Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Enplegu eta Gizarte Politiken Sailek, Sicos Group, Kutxa Fundazioa, Caixabank, Marcos Larrañaga y Cia (Lacor), Laboral Kutxak, Zinemaldia, Elikagaien bankua, Ausolan S. Coop eta gainerako pertsonak eta erakundeak erakutsi diguten sentiberatasuna eta inplikazioa ere goraipatu nahi ditugu.

Era berean, behar-beharrezkotzat dugu lan-kidetzan jardutea gizarte laguntzaileekin, prebentzio teknikariek eta harrera-erresidentzietako profesionalekin, Buruko Osasun Moduluekin, Lurraldeko Auzitegiarekin eta Martuteneko Espetxearekin.

Izaskun Sasieta

IZAN Fundazioko Programen Zuzendaria



1983. URTEAN DONOSTIAKO ELIZBARRUTIAK GAZTE TOXIKOMANOEN ETA BEREN FAMILIEN PROBLEMATIKA AZTERTZEA ERABAKI ZUEN. HALA, ORDUAN GOTZAIN ZEN JOSÉ M^a SETIEN CE.I.S.EKIN (ITALIAKO ELKARTASUN ZENTROA) HARREMANETAN JARRI ZEN.

HONA HEMEN HARREZKERO EMAN DITUGUN PAUSOAK:

1983	Gerora programaren arduradun izango zen Iñaki Aldabaldek Ce.I.S bisitatu zuen Erroman.
1984	IZAN FUNDAZIOA eratu zen.
1985	Gipuzkoako Gizakia Helburu ireki zen.
1990	Donostiako Programak, Bilbo eta Gasteizkoarekin batera, SUSTATU´90 Gizarte Zerbitzuen Lan Institutuzional Onenaren Saria jaso zuen, Eusko Jaurlaritzak eta Autonomia Erkidegoko hiru Aldundiek sustatuta.
1990	Bilbo eta Gasteizko programekin batera, Sabino Arana Fundazioa Saria jaso zuen, Gizarte Lan Onenari eskainitakoa.
1991	Donostiako Gizakia Helburu-k “Doctor Álvaro Navajas” Jardun Juridikorako Eskolako Patronatuaren Giza Balioentzako I. Saria jaso zuen giza duintasunaren alde egindako lanagatik.
1992	Donostiako Gizakia Helburu-k Hiritarren Merezimenduaren Domina jaso zuen.
1997	GIZAKIA eta JEIKI fundazioekin batera, Lan Humanitarioaren Tonetti Saria eman zitzaion.
2001	EUSKALITek Erabateko Kalitatearekiko Konpromisoaren Diploma eman zion IZAN Fundazioa-Gizakia Helburu-ri.
2002	Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako I. Gizartekintza Saria Gizarte Zerbitzuetako Kalitateari.
2007	Izan Fundazioa – Gipuzkoako Gizakia Helburuk Euskalitek (Kalitaterako Euskal Iraskundeak) esleitutako «Kudeaketako Kalitatearen Zilarrezko Q» a lortzen du.
2008	Gizakia Helburu – Izan Fundazioko bolondresak “Bolondresen 2008” saria jasotzen dute.
2014	Izan Fundazioa Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako lankidetzak erakundea izatea lortzen du.
2017	Eusko Jaurlaritzak Izan Fundazioa Gizarte Interesako erakundea dela aitortzen du.

HEZKUNTZA – TERAPIA

AR LOA

XEDEA:

Adikzioen tratamenduen esparruan denetariko jardunbide eta zerbitzuen sorkuntza, garapena eta hobekuntza sustatzea eta arrisku edota babesgabetasun egoeran dauden nerabeen eta haien senideen arazoei heltzea.

IKUSPEGIA:

Droga-kontsumoarekin eta beste motatako adikzioekin eta arrisku egoeran edo babesik gabe dauden Nerabeekin zerikusia duten arazoen tratamenduan Gipuzkoan erreferente izatea, erabiltzaileei eta bere ingurukoei zerbitzu erabilgarri eta eraginkorra ematea.

Erabiltzaileak eta beraien familiak asko aseko dituen eta horiei ongizate handia eskainiko dien erakundea izatea, eta bertako langileak eta boluntarioak gustura egotea beren laneko eta lanbideko garapenarekin.

Sektorean esku hartzen duten gainerako erakunde eta entitateekin harreman onak eta emankorrak izango dituen erakundea izatea beti ere etengabeko hobekuntzaren irizpideekin.

Gipuzkoako giza ingurunearekiko Elkarte konprometitu eta arduratsua izatea, gure gizarteak IZAN Fundazioagan duen konfidantzari erantzuna emanez.

BA LIO AK

Elkartasuna

Talde lana

Norbanakoaren autonomia

Baikortasuna

Koherentzia

Sareko lana

Berdintasuna

PROGRAMA TRADIZIONALA

HARRERA FASEA



Ulia-Enea Eguneko
Zentroa, Donostia

KOMUNITATE TERAPEUTIKOAREN FASEA



San Millan Zentroa,
Lasao (Zestoa)

GIZARATERATZE FASEA



Gizarteratze Zentroa,
Hernani

Programa Tradizionala Gipuzkoako Gizakia Helburu-k hasieratik garatu izan duen Programa ereduari dagokio. Drogak maila pertsonalean ez ezik harremanetan eta gizarte mailan nabarmen kaltetu dituen drogaren mendeko pertsonen zuzenduta dago.

Batez ere opiazeoekiko mendekotasuna duten pertsonen eskaintzen die laguntza, integrazio sozial urria edo inolakoa duten horiei. Kolektibo horri errehabilitazio integrala lortzeko alternatiba eskaintzen die, erabiltzaileek adikzioak gainditzeko dituzten ahalbideetan konfiantza izatea oinarritzat hartuta. Eredu honen bitartez pertsona ugari gizarteratu ahal izan dira arrakastaz.

Bereizitako **hiru fase ditu: Harrera, Komunitate Terapeutikoa eta Gizarteratzea**. Bi urte eta erdi irauten du gutxi gorabehera, kontuan hartuta azkeneko urtea Gizarteratzeko dela. Beraz, erabiltzaile bakoitzak Programa aurrera eraman eta aldi berean erabat normalizatutako bizimodua eraman dezake.

DATUAK

SARRERAK: **177**

ALTA TERAPEUTIKOAK: **30**

BAJAK: **109**

> Kanporatuak	24
> Deribazioak	4
> Espetxeratuak	1
> Borondatezkoak	77
> Heriotza	1
> Beste bat	2

BESTE PROGRAMA

BATERA BIDERATUAK: **13**

> Programa Irekia	4
> Egoitzazko Alkoholismo Programa	
Egoitzazkoa "Itxaro"	6
> Alkoholismo Programa Anbulatorioa ..	1
> Programa Intentsiboa	1
> Eraiki Programa	1

PERTSONAK **154**
2019-12-31n:

ARRETA
JASO DUTEN
PERTSONAK: 301

(*) Arreta jaso duten pertsonen guztizko kopuruan ez dira zenbatu bertan aurkeztuz informazioa eskatu duten 80 pertsonak, ibilbide honetan Programa hasi ez dutenak.

ARTATUTAKO PERTSONEN KOPURUA,
SEXUAREN ARABERA BANATUTA:

 **58**

 **243**

**EGOITZA
ALTERNATIBOA**

Uri-Gain Egoitza
Alternatiboa, Donostia

**GIZARTERATZEKO LAGUNTZA
MODULOA**

Gizarteratzeko Laguntza
Modulua, Hernani

Era berean, IZAN Fundazioak Donostiako Uri-Gain Zentroa kudeatzen du, zentroaren titularrak Maria Sortzez Garbiaren Semeak izanik. Zentroaren helburu nagusia haxe da, egoitza-laguntzaren bidez opiaseoekiko mendekotasuna duten pertsonen Programan sartzea ahalbidetzea, gizarteratze-maila urria duten edo gizarteratu gabe dauden pertsonak direlarik.

DATUAK

SARRERAK:	79
IRTEERAK HELBURUAK LORTUTA:	44
BAJAK:	30
> Kanporatuak	20
> Borondatezkoak	9
> Familia	1

PERTSONAK
2019-12-31n:

19

ARRETA
JASO DUTEN
PERTSONAK:

93

ARTATUTAKO PERTSONEN KOPURUA,
SEXUAREN ARABERA BANATUTA:

 17

 76

Programa Tradizionalak GIZARTERATZEKO LAGUNTZA MODULUA (M.A.I.S.) ere eskeintzen du Hernaniko Gizarteratze Zentroan gauzatzen delarik. Opiaseoekiko mendekotasuna duten pertsonen ematen die arreta. Errehabilitazio aldiko hezkuntza-terapia prozesua amaitzeaz dauden edo amaitu duten eta gizarteratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak dira.

Autonomia pertsonal handiagoa dutenean eta espazio bananduak erabiliz, Gizarteratze Zentrokoetatik bereizita, egoitzazko laguntza ematea da asmoa -aldez aurretik baldintzak, arauak eta eskubideak adierazten dituen kontratu pertsonala sinatuz-, sei hilabetetik hasi eta gehienez urte eta erdira arte luza daitekeena.

PROGRAMA

INTENTSIBOA

HARRERA FASEA



Eguneko Zentroa,
Hernanin

KOMUNITATE FASEA



Sustraiak Zentroa,
Hernanin

GIZARATERATZE FASEA



Gizarteratze Zentroa,
Hernanin

1995. urtearen erdialdera abiarazitako ereduari dagokio. Aurreko eredua oinarri hartuta, egiturari eta metodologiari dagokienez aldaketa batzuk barneratu ditu drogak kontsumitu arren gizartean eta familian neurri batean integratuta jarraitzen duten drogaren mendeko pertsona batzuen premiei eraginkortasun handiagoaz erantzutearren.

Pertsona horiei Programaren alderdi jakin batzuk, alegia jarreretan, norbere balore-eskalaren eta nork bere burua ezagutzeko eta heltzeko prozesuaren azterketan... eragina duten alderdiak kanpoko ingurunetik urruntzeko denborarik eman gabe aurrera eramateko aukera ematen die.

Era berean, eta substantzieko mendekotasunaz gain alterazio psikikoak dituzten pertsonen hezkuntza-terapia prozesua eta arreta psikiatrikoa uztartzeko aukera ematen die. Ibilbideak, batetik, tratamendu psikiatrikoan lagundu eta berau betetzeko aukera eskaintzen du eta, bestetik, prozesuan orientabidea eta laguntza eskaintzen du.

Ibilbide hau ere **hiru fasez** osatuta dago (**Harrera, Komunitate Terapeutikoa eta Gizarteratzea**), eta oro har urte eta erdi inguru irauten du guztira.

DATUAK

SARRERAK: 126

ALTA TERAPEUTIKOAK: 17

BAJAK: 74

- > Kanporatuak 15
- > Borondatezkoak 49
- > Deribazioak 9
- > Espetxeratuak 1

BESTE PROGRAMA
BATERA BIDERATUAK: 29

- > Programa Tradizionala 11
- > Programa Irekia 10
- > Eraiki Programa 4
- > Alkoholismo Programa Anbulatorioa... 1
- > Itxaro Programa 3

PERTSONAK 2019-12-31n: **93**

(*) **ARRETA**
JASO DUTEN
PERTSONAK: 213

(*) Arreta jaso duten pertsonen guztizko kopuruan ez dira zenbatu bertan aurkeztuz informazioa eskatu duten 49 pertsonak, ibilbide honetan Programa hasi ez dutenak.

ARTATUTAKO PERTSONEN KOPURUA,
SEXUAREN ARABERA BANATUTA:



35



178

PROGRAMA

IREKIA

Sustantzien kontsumoarekin arazoak eduki arren bizitza familiarra, laborala eta soziala mantentzeko gai diren pertsonen eskeintzen die arreta. Ordutegi malgua du beraien bizitzako ohiko jarduerak aurrera atera ahal izateko. Bereizitako hiru fase ditu: lehena Harrera Irekiari dagokiona, bigarrena Terapiia Faseari dagokiona eta hirugarrena Segimendu Faseari dagokiona. Harrera Fasea gaingiduz ero, Terapiia Fasea igarotzeko fase horrek planteatzen dituen jarduera guztiekiko konpromiso aktiboa hartu behar da berriro.

DATUAK

SARRERAK:	42
ALTA TERAPEUTIKOAK:	19
BAJAK:	24
> Borondatezkoak	21
> Deribazioak	3
BESTE PROGRAMA BATERA BIDERATUAK:	4
> Programa Intentsiboa	4

PERTSONAK 2019-12-31n: **48**

ARRETA JASO DUTEN PERTSONAK: **95**

ARTATUTAKO PERTSONEN KOPURUA, SEXUAREN ARABERA BANATUTA:



21



74



ALKOHOLISMO PROGRAMA

> Anbulatorioa

Alkoholismo Programak edanarekin arazoak dituzten erabiltzaileei arreta eskaintzen die. Helburua hau da, edari alkoholodunen kontsumoa murriztea edo ezabatzea, erabiltzailearen diagnostikoaren eta eskariaren arabera.

Hasieran diagnostiko fase bat dago, bi hilabete inguru irauten duena. Fase horretan, terapeutak erabakitzen du erabiltzailea zerbitzu honetan sartu edo Programaren beste programa batzuetara (Tradizionala, Irekia, Intentsiboa) edo kanpoko zerbitzuetara eraman.

Tratamendua anbulatorioa da, erabiltzailearekin hitzorduak jarritz, eta hark jarduera kolektiboetan (taldeak eta mintegiak) sartzeko aukera ere badu, baldin eta subjektuaren ezaugarriak taldeko osagaien perfilekin bat badatoz eta hark borondatez onartzen badu.

Gainera jarduerak egiten dira familiarekin, baldin eta erabiltzailearen segimenduan parte hartzen ari bada. Gizakia Helburu-ren gainerako programekin, Alkohol Programak informaziozko mintegiak eta auto-laguntza taldeak antolatzen ditu problematika hau duten erabiltzaileekin, edo gerora edaten berriro ez hasteko bertaratzea gomendatzen zaienean.

DATUAK

SARRERAK:	54
ALTA TERAPEUTIKOAK:	11
BAJAK:	16
> Borondatezkoak	12
> Deribazioak	4
BESTE PROGRAMA	
BATERA BIDERATUAK:	25
> Programa Tradizionala	3
> Itxaro Programa	11
> Programa Irekia	7
> Programa Intentsiboa	4

PERTSONAK
2019-12-31n:

33

ARRETA
JASO DUTEN
PERTSONAK:

85

ARTATUTAKO PERTSONEN KOPURUA,
SEXUAREN ARABERA BANATUTA:



34



51

> EGOITZAZKOA - ITXARO PROGRAMA

Edanak eragindako arazoak artatzeko programa osoa da.

Helburu zehatzak:

- > Erabiltzaileen bizi-kalitatea hobetzea lanaren, familiaren eta gizartearen esparruan eta arlo pertsonalean.
- > Erabiltzaileen eta familiaren, adiskideen eta lagunaren arteko komunikazioa hobetzea.
- > Erabiltzaileen artean rolak eta arauak onartzeko gaitasuna garatzea.
- > Erabiltzaileei euren burua hobeto ezagutzen laguntzea: autoezagutza historikoa, kognitiboa eta afektibo-emozionala.

Honako hauek dira jarduera nagusiak: banakako elkarrizketak, taldeko lana, familiei laguntzea, berriz ez erortzeko prebentzioari buruzko informazio-mintegiak, gizarte-trebetasunak.

DATUAK

SARRERAK:	24
BAJAK:	3
> Borondatezkoak	2
> Kanporatuak	1
BESTE PROGRAMA BATZUETARA BIDERATUAK:	22
> Programa Tradizionala	20
> Alkoholismo Programa Anbulatorioa...	2

PERTSONAK
2019-12-31n: 14

ARRETA
JASO DUTEN
PERTSONAK: 39

ARTATUTAKO PERTSONEN KOPURUA,
SEXUAREN ARABERA BANATUTA:



14



25

ERAIKI PROGRAMA

Gaixotasun mental larria izan eta sustantzien gehiegizko erabilera duten pertsonentzat eta haien familientzat zuzendutako programa da.

Helburuak:

- > Sustantziak gehiegi hartzen dituzten eta nahaste mental larria adierazten duten Gizakia Helburura datozen pertsonen eta familieen arreta pertsonalizatua eman.
- > Programa honen bidez, erabiltzaileari eta haren familiari, helburuetan, denboretan eta egituretan, arreta zehatzagoa eta pertsonalizatua ematen dien zerbitzua gehitu nahi dugu programara.
- > Zerbitzuaren azken helburua da erabiltzaileari gaixotasuna eta haren psikologia-, gizarte- eta osasun-arloko ondorioak ezagutzen laguntzea, baita ahal diren autonomia-mailetara heltzeko behar dituzten baliabideak erabiltzeko aukera ematea ere.

DATUAK

SARRERAK:	38
ALTA TERAPEUTIKOAK:	15
BAJAK:	16
> Borondatezkoak	12
> Deribazioak	1
> Espetxeratuak	2
> Beste bat	1

PERTSONAK
2019-12-31n: 68

ARRETA
JASO DUTEN
PERTSONAK: 100

ARTATUTAKO PERTSONEN KOPURUA,
SEXUAREN ARABERA BANATUTA:



14



86

AIPATUTAKO PROGRAMEZ GAIN, GIZAKIA HELBURU-K FAMILIAREN ESKU-HARTZEAN PARTE HARTZEN DU BI JARDUNBIDE DAUDELARIK:

Bata errehabilitazio prozesuaren kalitatea hobetzera zuzenduta dago. Bestea familiei arreta eskaintzera bideratzen da, seme-alabaren prozesuaz harantz Auto-Laguntza taldeen bitartez eta Logoterapia zerbitzua eskainiz.

Urtean zehar 1.472 senide/lagun-ek hartu dute parte programatutako hainbat jardueretan.

271 Ama (%18.41)
189 Bikote emakumezkoa (%12.84)
186 Aita (%12.64)
163 Arreba/ahizpa lehena (%11.07)
80 Lagun gizonezkoak (%5.43)
76 Anaia lehena (%5.16)
61 Arreba/ahizpa bigarrena (%4.14)
51 Lagun emakumezkoak (%3.46)
46 Alaba lehena (%3.13)
39 Izeba (%2.6)
35 Seme lehena (%2.38)
31 Arreba/ahizpa hirugarrena (%2.11)
30 Bikote gizonezkoa (%2.04)
26 Osaba (%1.77)
22 Anai bigarrena (%1.49)
22 Koinatu (%1.49)
19 Koinata (%1.29)
15 Aita orde (%1.02)
12 Lehengusu (%0.82)
10 Alaba bigarrena (%0.68)
10 Hezitzaile emakumezkoa (%0.68)
9 Ama orde (%0.61)
9 Arreba/ahizpa laugarrena (%0.61)
9 Lehengusu (%0.61)
8 Ilobak emakumezkoa (%0.54)
6 Ilobak gizonezkoa (%0.41)
5 Amona (%0.34)
5 Anaia hirugarrena (%0.34)
5 Aitagarrena (%0.34)
5 Anaia laugarrena (%0.34)
4 Arreba/ahizpa bostgarrena (%0.27)
4 Hezitzaile gizonezkoa (%0.27)
3 amagarrena (%0.20)
3 semea bigarrena (%0.20)
2 anaia bostgarrena (%0.14)
1 Aitona (%0.07)



Banakako eta taldekako aktibitate ohikoez gain (Topaketa Jatorrizko Familiarekin, Topaketa Beraren Familiarekin, Topaketa Bikotekidearekin, Elkarrizketa Jatorrizko Familiarekin, Elkarrizketa Beraren Familiarekin, Elkarrizketa Bikotekidearekin, Familia anitzeko Taldea, etc.), Abenduan Donostian ospatutako Gabonetako Biltzar Orokorra azpimarratu behar dugu. Erabiltzaile guztiei zuzendutako Argazki Lehiaketa bat antolatu genuela aprobetxatuz bertan banatu genituen sariak. Lehiaketaren gaia "Ilusioa" izan zen eta **"Galdutako denbora aprobetxatuz"** izenburua zuen argazkiak irabazi zuen. Argazki hori gainera gabonetako postalerako erabili genuen.

**TRATAMENDURAKO
LAGUNTZA**

ZER

BI

TZUAK

GIZARTE-LANA ZERBITZUAK

Zerbitzu hau gizarte-langile batek garatzen du eta honako hauek ditu helburu: erabiltzaileei beren eskariei edota premiei erantzuteko dauden baliabideei buruz informatzea eta orientatzea, egindako eskaera baten aurrean dauden alternatiba desberdinei buruz aholku ematea, erabiltzaileak ingurune baliabideekin koordinatzea, irtenbideak bilatzen laguntzea eta beren konpromisoei erantzun eta beren dokumentuak formalizatu ahal izateko hezte eta motibatzea.

Gizakia Helburu-n sartzen diren erabiltzaile guztiei zuzendutako zerbitzua da, lehenengo elkarriketa izan ondoren zerbitzua eskatzen duten horiei. Erabiltzaileak maila sozio-ekonomikoan dauden baliabideen sarera hurbiltzen laguntzea du helburutzat, baliabide horiek erabil ditzaten, dituzten eskubideak kontuan hartuz eta dituzten betebeharrak errespetatuz.

ERABILTZAILEEN ESKAERAK

(Osasun Txartel Indibiduala (OTI), Nortasun Agiria, Laguntza Ekonomikoak, Laguntza bereziak, Aldi baterako ezgaitasunak, Zertifikatuak, Erroldatzea, etab.).

1.379

ATENTZIOEN KOPURUA

1.245



GINARRIZKO HEZIKETA ZERBITZUAK

Ikasleei ahozko eta idatzizko ulermenean, matematika kalkuluetan eta problemen ebazpenean oinarritzko trebetasunak eta estrategiak lortzeko edo sendotzeko aukera eskaintzen zaie, baita eremu pertsonalean eta profesionalean sortuko zaizkien egoerei aurre egin ahal izateko eremu soziokulturalari dagozkion beste alderdi batzuk ere. Ahal den neurrian, dagokion titulazioa/akreditazioa lortzeko berrespena izatea da asmoa.

Aurrekoetan bezala, Prestakuntza Donostiako Ignacio Zuloaga Helduen Hezkuntza Iraunkorreko Ikastetxe Publikoarekin lankidetzan aurrera eraman da eta ikasleak jarduera beren borondatez hastean Harrera eta Komunitate fasean zeuden erabiltzaileak izan dira.

EBALUAKETA

BATXILERGOAN MATRIKULATUAK	34
GAINDITZEN DUTE	18
EZ DUTE GAINDITZEN	12
GIZAKIA HELBURU UZTEN DUTE	4
ARTATUTAKO PERTSONAK	130
BIGARREN HEZKUNTZAKO GRADUAZIOA LORTZEN DUTE	5

Urtero bezala, kultura eta aisialdiko irteerak egin dira ikasleekin. Esaterako, martxoan “Dferia” ospatu da eta bertan izan ginen “Yo no estoy loca” antzezlanak ikusten.

Gainera, Irailean eta Zinemaldiaren antolatzaileei esker hainbat erabiltzailek filme desberdinak ikusteko aukera izan zuten.



ZERBITZU

JURIDIKO

PENITENTZIARIOA

Zerbitzu honen helburu nagusia hauxe da, erabiltzaileei ezarritako kondena penalen kontrola eta segimendua egitea. 2019an espetxearen neurri penal alternatiboak eskatu zaizkie Epaileei eta Auzitegiei. Neurri horien artean kondena etetea eta segurtasun neurriak dira nabarmentzekoak.

Martuteneko espetxean Programan sartu nahi zuten internoen segimendua egin da, zituzten kondenatarako soluziobide penalak emanez eta espetxetik atera eta gero Gizakia Helburu-n betearazpen segimendua eginez. Ildo honetan, Magrebeko pertsonen arreta pertsonalizatua eskaini diegu, arabiera menderatzen duen gure terapeuta baten bidez.

Azken finean hauxe lortu nahi da, sententzia penalak nahiz espetxeratzeko sententziak bete ordeztu Programa egitea, Epaileei, Auzitegiei eta Sistema Penitentziarioari erabateko berme juridikoa eskainiz.

Gainera gure erakundea GADen (Droga Mendekotasunen Arretarako Taldean) parte hartzen jarraitu du. Martuteneko Espetxeko Zuzendaritzarekin, zentro horretako tratamenduko Zuzendariordetzarekin eta Agipadekin batera, Terapia Zentro batera sar daitezkeen presoaren egoera aztertze ko koordinazio handiagoa lortu dugu.

LABURPEN TAULA


GAI JURIDIKOAK DITUZTEN ARTATUTAKO PERTSONA DESBERDINAK	214
ZIGORRA BETETZEN ARI DIREN ERABILTZAILEAK	64
MARTUTENeko ESPETXEAN ARTATUTAKO ERABILTZAILEAK	83
ESPETXETIK ATERATAKO PERTSONAK GIZAKIA HELBURU PROGRAMA HASTEKO	21
ZIGORRA ETENDA DUTEN ERABILTZAILEAK	26
GIZARTEARENTZAKO LANETAN PARTE HARTUTAKO ERABILTZAILEAK	17
GIZARTEARENTZAKO LANAK AMAITUTAKOAK	11

ZERBITZU


MEDIKO- PSIKIATRIKOA

Arlo honetan egindako lanaren asmoa hauxe da, errehabilitazio prozesuan dauden erabiltzaileen bizi-kalitatea eta osasun-egoera hobetzen laguntzea. 2019an irekitako historial kliniko berrien arabera bildutako datuak: 270


TRANSAMINASAK




ADIERAZLE BIRIKOAK C HEPATITISA




MANTOUX




HIES-A



ADIERAZLE BIRIKOAK B HEPATITISA



TRATAMENDU PSIQUIATRIKOA (205 - ZABALDUTAKO KASU KLINIKOEN %75,9)



(*) OSASUN MENTAL ZENTROAK:

Donostia	Amara Egia Antiguoa	61	14 29 18
Andoain		15	
Arrasate		11	
Azpeitia		2	
Beasain		8	

TXERTOAK

Burlada	1	Hepatitis A	1
Errenteria	13	Hepatitis B	50
Eibar	6	Hepatitis A+B	7
Irun	15	Tetanos oroigarri	32
Tolosa	5	Tetanos osoa	6
Zarautz	3		
Zumarraga	4		

ERABILTZAILEEN


**PER
FILA**

PERFIL

OROKORRA

Jarraian, arreta jaso duten pertsonen ezaugarriei buruzko datu batzuk laburbildu ditugu. Orain eskeintzen dizuegun profila osatzeko, Gizakia Helburuk Gipuzkoan eskeintzen dituen prozesu terapeutikoetan arreta jaso duten erabiltzaileen ezaugarriak aztertu dira, logoterapia zerbitzua barne.

SEXUA




(*) BIZILEKUA


Herria	Zk	Herria	Zk	Herria	Zk
ALEGIA	1	ELGETA	1	OIARTZUN	11
ALGAMITAS	1	ELGOIBAR	7	OLABERRIA	1
AMEZKETA	2	ERMUA	1	ORDIZIA	8
ANDOAIN	15	ERRETERIA	50	ORIO	6
ANOETA	1	ESKORIATZA	3	OÑATI	7
ARANTZA	1	GALDAKAO	1	PASAIA	24
ARETXABALET	3	GASTEIZ	2	SORALUZE	1
ARRASATE	13	GETARIA	3	SEGURA	2
ASTEASU	1	HERNANI	40	TOLOSA	14
ASTIGARRAGA	6	HONDARRIBIA	7	TORREDEMBARRA	1
ATAUN	1	IBARRA	3	TUTERA	1
AZKOITIA	7	IDIAZABAL	2	UHARTE	1
AZPEITIA	9	IRUN	71	URNIETA	11
BEASAIN	12	IRURA	1	URRETXU	7
BERA	5	LAREDO	1	USURBIL	2
BERGARA	7	LASARTE-ORIA	18	ZARAUTZ	18
BILLABONA	7	LAZKAO	2	ZEGAMA	1
BOECILLO	1	LEGAZPI	11	ZESTOA	3
BURGOS	1	LESAKA	1	ZIZURKIL	8
DEBA	2	LEZO	7	ZORRAQUIN	1
DONOSTIA	231	LIZARTZA	1	ZUMAIA	9
EIBAR	10	MENDARO	1	ZUMARRAGA	8
ELDUAIN	1	MUTRIKU	4		

(*) Datu Erabilgarriak

DROGA NAGUSIA TRATAMENDUA HASI AURRETIK




LAN EGOERA




ERABILTZAILEEN PERFILA

EGOERA ZIBILA




PROGRAMAN SARTU AURRETIK BIZIKIDETZA NOREKIN




BERARIAZKO PERFILA


EGOERA ZIBILA



DROGA NAGUSIA



LAN EGOERA



JOKAERAREKIN ERLAZIONATUTAKO MENDEKOTASUNAK

LUDOPATIA, BIDEOA JOKOAK, EROSKETAK

2019an sustantziarik gabeko adikzioen kasuak artatzen jarraitu dugu. Horietako batzuetan gainera sustantziekiko adikzioa ere gehitzen da. Hauek dira ezaugarri nagusiak:

SEXUA	JOKAERAREKIN ERLAZIONATUTAKO ADIKZIOA	GAINERA SUSTANTZiarekiko ADIKZIOA	ADINA	BIZILEKUA
Gizonezkoa	Ludopatia	Alkohola	49	Mutriku
Gizonezkoa	Ludopatia	Kokaina	28	Ordizia
Gizonezkoa	Teknologia berriak		52	Tolosa
Gizonezkoa	Ludopatia	Alkohola	62	Bergara
Gizonezkoa	Ludopatia	Alkohola eta Kokaina	32	Donostia
Gizonezkoa	Ludopatia		21	Errenteria
Gizonezkoa	Ludopatia		46	Irun
Gizonezkoa	Ludopatia		41	Zumaia
Gizonezkoa	Ludopatia	Kokaina	39	Donostia
Gizonezkoa	Ludopatia		55	Segura
Gizonezkoa	Ludopatia	Kokaina	34	Eskoriatza
Gizonezkoa	Ludopatia	Kokaina	60	Eibar
Gizonezkoa	Ludopatia	Anfetaminak	51	Irun
Gizonezkoa	Ludopatia	Alkohola	32	Donostia
Gizonezkoa	Ludopatia		45	Errenteria
Gizonezkoa	Ludopatia		26	Zarautz
Gizonezkoa	Ludopatia		43	Lasarte
Gizonezkoa	Ludopatia	Anfetaminak	34	Donostia
Gizonezkoa	Ludopatia	Kokaina	42	Eskoriatza
Gizonezkoa	Ludopatia		46	Donostia
Gizonezkoa	Ludopatia	Kokaina	44	Errenteria
Gizonezkoa	Ludopatia	Kokaina	43	Asteasu
Gizonezkoa	Ludopatia		34	Hernani
Gizonezkoa	Ludopatia		33	Urnieta
Gizonezkoa	Ludopatia	Haxixa	21	Zizurkil
Gizonezkoa	Ludopatia	Anfetaminak	35	Errenteria
Gizonezkoa	Ludopatia		59	Donostia
Gizonezkoa	Ludopatia	Speed	43	Irun
Gizonezkoa	Ludopatia	Alkohola	42	Pasaia
Gizonezkoa	Ludopatia	Alkohola	47	Pasaia
Gizonezkoa	Ludopatia	Haxixa	46	Irun
Gizonezkoa	Ludopatia	Speed	40	Zumaia
Gizonezkoa	Ludopatia	Speed	42	Pasaia
Gizonezkoa	Ludopatia	Alkohola	63	Hernani
Gizonezkoa	Ludopatia		31	Irun
Gizonezkoa	Ludopatia		23	Donostia

**ERABILTZAILEEN
JARDUEREN**

**LA
BUR
PENA**

Erabiltzaileek egindako jarduera nagusien laburpena

AKTIBITATEA	ERABILTZAILEAK	IRAUPENA
Autolaguntza Taldea	580	1½h
GT-Genograma/Familiarra	143	4h
Talde Estatiko/Emoziozkoa	189	2h
Talde Dinamiko Ez Adierazia	116	1½h
Hezibideko Esperientzia	51	2h
Tailerra	195	4h
Arduradunen Taldea	122	1½h
Denbora Libreko Aktibitate Zehatzak	363	2h
Topaketa Orokorra	261	1h
Mintegia	369	2h
Aulki hutsaren dinamika	57	1h
Banakako Elkarriketa	732	1h

Urtean zehar erabiltzaileak Aisialdiko hainbat jardueretan hartu dute parte. Horietatik azpimarragarrienak honako hauek:



DONOSTIAKO ZINEMALDIA



SANTA KLARA UHARTEA



KRISTINA ENEA PARKEA



EREÑOZU



IGELDO



USAC-en BIXITA (Estatu Batuetako Unibertsitateen Kontsorzioa)

GIZA

BA
LIA


BI

DEAK

PERTSONALA

Gizakia Helbururen langileak 48 izan dira, eta horiez gain beste 17 lagunek ere esku hartu dute, gaixotasun bajak ordeztzeko nahiz oporraldien hutsuneak betetzeko.

**BATAZ
BESTEKO
ADINA:
46 urte**



Era berean, Gizakia Helburuko profesionalek hainbat prestakuntza saiotan parte hartu dute. Anitza izan da, bestalde, ikastaroen tipologia: Psikodrama, ikuskapen klinikoa, etb...

Ikastaroren batean parte hartu duten pertsona desberdinak	55
Ikastaro desberdinen kopurua	73
Formazioan zuzenean inbertitutako orduak	1.554,1
Inbertitutako orduak ikastaroko	21,29
Batez besteko iraupena ikastaroko	3,74
Orduak batez beste pertsonako	8,26
Pertsonak batez beste ikastaroko	5,68
Batez besteko balorazioa	7,32

FORMAZIO JARDUERAK, GENEROAREN ARABERA

	EMAKUME	GIZON
Ikastaroren batean parte-hartzaile desberdinak	33	22
Ikastaro desberdinen kopurua	67	40
Formazioan zuzenean inbertitutako orduak	1.078,3	475,8
Inbertitutako orduak ikastaroko	16,09	11,9
Batez besteko iraupena ikastaroko	4,23	2,97
Orduak batez beste	32,68	21,63
Batez beste ikastaroko	3,81	4
Batez besteko balorazioa	7,39	7,19

Urtean zehar egindako prestakuntza jardueren artean, "Jokaerarekin erlazionatutako mendekotasunak" gaiaren inguruan eginikoa azpimarratuko genuke. Marta Sancho, Bartzelonako Santa Creu eta Sant Pau ospitaleko psikologa klinikoa izan da hizlari erakundeko profesional guztien aurrean.



BOLUNTARIOTZA


Gizakia Helburu – Izan Fundazioak garatzen dituen programen borondatezko langileen kolektiboa, 2019. urtean berriro ere, oso heterogeneoa izan da. Oro har lan egin duten zereginen funtzioaren arabera banatzen direnez, denetarikoa aurkitzen ditugu: akademikoki kualifikatutako gazteak izan ohi dira (psikologoak, Terapia Familiarreko masterraren ikasleak...) esku-hartze zuzeneko aktibitateetan parte hartzen dutenak; adinekoek lan osagarrien ardura beren gain hartu ohi dute (telefono-arreta, lan administratiboa...)

Borondatezko 64 lagunek kolaboratu dute gure elkartearekin. Urtean 4 baja bakarrik izan ditugu (erdia baino gehiago, lan arrazoiengatik) eta 15 sarrera berri, beste behin ere oso datu positiboa. Gainera, emakumeak gehiengoa diren alorrean, gizonezkoen presentzia %6^a igo dela azpimarratu nahi dugu.

Erakundearekin kolaboratzeko gutxieneko konpromiso bat beren gain hartzea da sartzeko eskatzen zaien baldintza bakarra (eskuragarri jartzen duten denbora, erregulartasuna, jarraikortasuna...), bai eta, jakina, geroago hartutako konpromisoak betetzea ere, misioa eta berau arautzen duen araudia errespetatzen dutelarik.

Gure Erakundearen bolondresen ezaugarriez ari garela, honako hauek nabarmen ditzakegu. Beste urte batez, aurten ere emakumeak dira gehienak, nahiz eta zorionez gizonezkoen presentzia beste urte betez igo den.


SEXUA



Urtero bezala, gure Erakundeak Borondatezkoen omenezko ekitaldiak eta prestakuntza ekintzak antolatu ditu.



OKUPAZIOA



KANPO

KOMU
NIKA
ZIOAK



Urtean zehar gure lanari buruzko informazio eskaera anitza jaso ditugu. Guztiak, honako taulan isladatu ditugu:

ESKATZAILEA	
Hondarribiako Udala	Mendekotasunak artatzeko erakundeen konfederazioa
Zarautzko Udala	Cadena Ser (“A vivir que son dos días” saioa)
La Salle Donostia	San Juan de Dios ospitalea
Gipuzkoako Foru Aldundia	Usurbigo sendategia
Leizaran Institutoa	Euskal Telebista – Albistegiak
UPV - EHU	Lanbide Heziketa Makina Erreminta
San Patricio Ikastetxea	Esperantzarako telefonoa
Eta Kitto! Egunkaria Eibar	Instituto Leizaran Andoain
Agipad	Inmaculada Ikastetxea
Farmazia Ikasleak	JEIKI Fundazioa
Deustoko Unibertsitatea	Lauaizeta BHI
Irungo Udala-Ongizate Saila	Gizarte Hezkuntzako ikasleak
Azkoitiako Udala	ETB-Ur handitan saioa
Ibai Ondo Zentroa	Zumaiako Parafarmazia
ETB2 “Está pasando” saioa	Erreenteriako Udala
Berria	Eusko Jaurларitza-Osasun Saila
Summa Ikastetxea Donostia	

LA
GUN
TZA

EKONOMIKOAK

Asko dira Gipuzkoako Gizakia Helbururi ekonomikoki laguntza ematen dioten erakunde publiko eta pribatuak. Haiei guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, pertsonaren alde egiteagatik eta beren elkartasun konpromisoa berresteagatik.

PUBLIKOAK

↳ GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA/ GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA



↳ EUSKO JAURLARITZA / OSASUN DEPARTAMENTUA eta ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKAK DEPARTAMENTUA



- Legazpi
- Lezo
- Mendaro
- Oñati
- Ordizia
- Ormaiztegi
- Pasaia
- Tolosa
- Urnieta
- Urretxu
- Zaldibia
- Zarautz
- Zumaia
- Zumarraga

PRIBATUAK

↳ UDALETXEAK

- Aiztondo Mankomunitatea
- Alegia
- Anoeta
- Arama
- Aretxabaleta
- Arrasate
- Asteasu
- Astigarraga
- Azkoitia
- Azpeitia
- Billabona
- Eibar
- Elgoibar
- Eskoriatza
- Getaria
- Hernani
- Ibarra
- Irun
- Irura
- Lasarte-Oria
- Lazkao

↳ ELIZA:

- Karitateko Ahizpa Mertztedariak
- Probidentziako Ahizpak (Idiazabal)
- Frantziskotarrak (Tolosa)
- Pasionistak (Urretxu)
- Agustinak (Erretereria)
- “La Milagrosa” Elkartea (Elgoibar)
- La Salle

↳ ENPRESAK

- Kutxa Fundazioa
- Ausolan
- Laboral Kutxa
- Sicos
- Marcos Larrañaga y Cia (Lacor)
- Caixabank

ASEBETETZE

IN KES TAK

Erabateko Kalitatearen aldeko konpromisoari men egiten jarraitzeko, erabiltzaileen, senideen, langileen eta boluntarioen artean hainbat satisfazio-inkesta egin dugu. Halaber, aurten Gizakia Helbururen aliantzen irudi soziala eta satisfazio-maila neurtzeko zundaketa bat ere egin dugu, bi urtean behin egin ohi duguna. Berriro ere, emaitzak oso positiboak izan dira, hurrengo tauletan ikus daitekeenez. Alabaina, gure erakundetik ez dugu ahaztu nahi etengabeko hobekuntza dela Programaosatzen duten pertsona guztien satisfazioa lortzeko bidea.


ERABILTZAILEAK

INKESTAK

313

BATAZ BESTEKO
POZITASUNA

8,30



Nº		Muy Malo	Malo	Regular	Bueno	Muy Bueno					
1.	Satisfacción general con el Programa	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2.	Horarios de atención	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
3.	Estado de locales e instalaciones	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
4.	Puntualidad (citas, actividades...)	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
5.	Tu conocimiento de los objetivos del Programa ...	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
6.	Método que emplea el Programa	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
7.	Trato del equipo	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
8.	Trabajo que realiza el equipo	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
9.	Trato con compañeros y compañeras	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
10.	Actividades de Tiempo Libre	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
11.	Grado en que se han cubierto tus necesidades ...	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
12.	Conjunto de servicios que ofrece el Programa ...	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
13.	Resultado de tu estancia en el Programa	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

FAMILIAK


FAMILIAKO ESKU-HARTZE PARALELOA

INKESTAK

221

BATAZ BESTEKO
POZTASUNA

8,35



Nº		Muy Malo	Malo	Regular	Bueno	Muy Bueno					
1.	Horarios de atención	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2.	Estado de locales e instalaciones	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
3.	Puntualidad (citas, actividades...)	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
4.	Tu conocimiento de los objetivos del Programa ...	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
5.	Método de trabajo con la familia	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
6.	Trato del equipo que os atiende	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
7.	Relación con el/la terapeuta de quien hace el Programa	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
8.	Mejoría en el estado de la persona en tratamiento	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
9.	Grado en que se cubren vuestras necesidades ...	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
10.	Pautas recibidas para mejorar la relación familiar	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
11.	Resultado de vuestra implicación en el Programa	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
12.	Tu nivel de satisfacción con la Intervención Familiar	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

FAMILIAK

AUTO LAGUNTZA


TALDEAK

INKESTAK

98

BATAZ BESTEKO
POZTASUNA

8,65



Nº		Muy Malo Malo Regular Bueno Muy Bueno									
		1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1.	El horario de grupo	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2.	El conocimiento de los objetivos del grupo	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
3.	La puntualidad de inicio y fin	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
4.	La estabilidad en la composición del grupo	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
5.	El cumplimiento de objetivos del grupo	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
6.	La confianza con quienes integran tu grupo	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
7.	La actitud de escucha en el grupo	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
8.	El compromiso con el secreto de grupo	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
9.	Tu implicación personal en grupo	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
10.	El beneficio en tu vida personal	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
11.	Tu nivel de satisfacción por participar en Autoayuda	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10


BOLUNTARIOTZA

INKESTAK

25

BATAZ BESTEKO
POZTASUNA

9,08



Nº	Grado de Acuerdo
1.	Conozco claramente las tareas que debo desempeñar
2.	La atención que recibo del Programa es suficiente
3.	Recibo buen trato de quien me atiende
4.	Considero que se me aprovecha suficientemente
5.	Me gustaría que me comentasen regularmente mis aciertos y fallos
6.	El Programa reconoce el trabajo que hago
7.	Cuando tengo alguna dificultad sé a quién dirigirme para resolverla
8.	Sé que puedo hacer sugerencias para hacer mejor mi trabajo
9.	La labor que desempeño es valiosa para el Programa
10.	Estoy satisfecha/satisfecho de colaborar con el Programa

**BERDINTASUN-
AREKIKO**

KON
PRO
MEZUA

IZAN FUNDAZIOA, 2014A EZKEROZTIK EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO LANKIDETZA ERAKUNDEA DA.

Berdintasunaren aldeko kudeaketa beti egon da Fundazioaren oinarrian. Horren adibide dira orainarte garatutako hainbat ekintza:

- Programen zuzendaritza emakume baten esku.
- Langileen artean emakume eta gizonezkoen arteko oreka: %54,55 emakumezko eta %45,45 gizonezko.
- Datuak kudeatzeko garaian emakumezkoak eta gizonezkoak bereizten dituen sistema Informatikoa, bakoitzaren ezaugarria aztertzearen, beti ere berdintasunaren ikuspegitik.
- Sexuarengatik diskriminazio eza erakundearen xede, ikuspegi eta baloreetan.
- Hizkuntzaren eta Irudiaren erabilpen ez sexista.
- Ordainketa politika gardena eta berdina langile guztientzat.

Era berean jazarpen laboraleko, sexualeko eta jazarpen sexista edo sexuagatiko egoeren aurrean prebenitzeko eta jarduteko protokoloa dugu eta baita hizkuntza inklusi-boa erabiltzeko gida bat ere.

2019an, “Bai Sarea”n parte hartzen jarraitu dugu, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundea bultzatuta. Parte hartzen duten entitateek Berdintasunerako Erakunde Laguntzaile bereizgarria dute eta sarearen helburua lankidetzarako espazio bat izatea

da, berdintasun-planek antolakundeetan lan-merkatuaren genero-ezberdintasunak murrizteko duten eragina biderkatzeko.

Enpresa-sarearen helburua da beste entitateekin esperientziak partekatzea, eta berdintasunaren aldeko politikak antolakundeetan indartu eta gure gizartean eragin handiagoa izatea. Berdintasunaren aldeko planak eta ekintzak enpresetan duten eragina biderkatzea du xede. Urtean zehar lan sesio desberdinak burutu dira eta etorkizuneari ere bertan parte hartzeko asmoa dugu.

Martxoan, Bilbon sarearen 2. Biltzarra ospatu zen eta Abenduan hirugarrena. Hernanin.





Lehenago, Otsailean Tolosan ospatutako “Berdintasuna, Gizartea eta Etorkizuna” kongresu feministan egon ginen.

Irailean, “Bai Sarea” ko entitateek Donostian, Tabakalera eraikinean elkar topaketa batean parte hartu genuen gure arteko koordinazioak hobetzeko asmotan.

gula nabarmendu nahi dugu. Horien artean azpimarratu dezakegu Maitane Urbietak, “Eraberria”ko Berdintasun Aholkulariak familien Autolaguntzako taldeei eta Eraiki programako senideei eskeinitakoa.



2018tik 2022ra bitarteko II Berdintasun Planean aurreikusitako ekintzak burutu ditu-



2019
TXONA
TXONA
TXONA
TXONA
TXONA

